RUEDA DE PRENSA

# PRESENTACIÓN DEL DOCUMENTO *DESLEGITIMACIÓN DE LA VIOLENCIA*

Durante los últimos años, Gesto por la Paz, además de exigir de forma permanente el final del terrorismo de ETA, ha insistido en dos principios fundamentales para poder afrontar este grave problema, que son:

- La deslegitimación de la violencia
- La solidaridad y el reconocimiento hacia las víctimas de la violencia.

En esta rueda de prensa queremos presentar el documento que hemos elaborado sobre el primero de estos principios, **la deslegitimación de la violencia**, concepto y actitud, que va más allá de la condena a ETA. En este documento hemos tratado de argumentar las razones fundamentales por las que consideramos necesario deslegitimar la violencia y hemos desarrollado lo que esto significa en la práctica.

Consideramos que es fundamental que el rechazo a la violencia terrorista se realice desde unas bases firmes que garanticen, en primer lugar, poder hacer frente en el presente a esta barbarie, pero también, garanticen en todo momento la defensa de los principios democráticos, los derechos humanos y la propia pluralidad de la sociedad vasca.

Esas bases firmes comienzan, desde nuestro punto de vista, por asumir y defender plenamente la deslegitimación de la violencia, lo que implica unas actitudes que afectan al quehacer diario de las instituciones, los partidos políticos y la sociedad en general.

Estas actitudes son:

- **La sociedad debe compartir el rechazo moral a la violencia.** Consideramos imprescindible que la sociedad, al margen de las diferencias ideológicas, comparta y defienda que no hay, ni ha habido razón ni justificación alguna para el ejercicio de la violencia terrorista y, por lo tanto, realice una radical defensa de la vida y los derechos humanos.

- **La sociedad, liderada por sus instituciones y fuerzas políticas, debe comprometerse firmemente en el reconocimiento, la solidaridad y la memoria hacia las víctimas de la violencia.** Consideramos prioritario que la ciudadanía reconozca a las víctimas de la violencia como las personas que han recibido directamente un ataque que iba dirigido contra toda la sociedad, ya que ETA ha elegido a sus objetivos no por ser quienes son, sino por lo que representan para la sociedad en la que viven.

- **Se debe rechazar claramente cualquier disculpa de la violencia relacionada con el contexto social y político**. La deslegitimación de la violencia implica la desautorización moral y política de quienes pretenden establecer un nexo causal de necesidad entre la violencia y el problema político que surge de los diferentes sentimientos identitarios que existen en esta sociedad. En la actual situación socio-

política ningún sufrimiento humano, frustración o ansia política puede justificar el apoyo o la contextualización del ejercicio de la violencia contra otros vecinos. Aquí y ahora, ningún conflicto conduce necesariamente al uso de la violencia para la resolución del mismo. Por lo tanto, debemos rechazar el argumento de que el terrorismo no es un problema en sí mismo, sino el reflejo de un contencioso político cuya solución es el precio que se debe pagar por la desaparición definitiva de la amenaza de la violencia. Es preciso no justificar, contextualizar, disculpar... la violencia como herramienta política y poner en evidencia su uso como fruto de una decisión errada.

- Por lo tanto, se debe disolver definitivamente la pretendida vinculación entre violencia y política.
  No existe una relación necesaria entre la violencia de ETA y problema político alguno. La violencia de ETA no depende, necesariamente, de la existencia de problemas políticos. La violencia de ETA sólo es necesaria para quienes comparten una determinada visión sobre esos problemas políticos y la forma de resolverlos. Esto es, el terrorismo sólo se convierte en instrumento de lucha en base a una determinada percepción de la realidad de Euskal Herria.

  En este sentido, se debe desvincular de manera radical las decisiones políticas respecto a nuestro futuro de la amenaza y el chantaje de la violencia o de su abandono. Quienes utilizan la violencia han de percibir que nunca van a conseguir sus objetivos a través de ella. Sería totalmente ilegítimo conceder contrapartidas políticas por el abandono de la violencia.

  Además, es necesario que a la hora de abordar los debates políticos sobre el futuro de nuestra sociedad se manifieste que la violencia de ETA y su amenaza permanente supone una enorme dificultad para hacer una política normalizada en libertad e igualdad de oportunidades, especialmente para las opciones no nacionalistas. Al mismo tiempo, la existencia de ETA no debería paralizar el debate político. Por tanto, intentar conjugar estas dos afirmaciones –hacer política a pesar de la violencia y evitar que ETA tutele la política-, nos exige, en un grado más elevado que si no existiera violencia, buscar los mayores consensos posibles a la hora de abordar cualquier propuesta significativa sobre el futuro político de nuestra sociedad.

- Debe darse una apuesta absoluta por la convivencia pacífica desde la pluralidad. El ataque terrorista supone la negación de la pluralidad, sin el más mínimo respeto a las distintas concepciones identitarias de los miembros de esta sociedad. Es imprescindible que cualquier proyecto político sea activamente respetuoso con la pluralidad existente. El País Vasco y Navarra se han ido configurando como sociedades plurales, cultural y políticamente. Hablar de Euskal Herria es hablar de una realidad humana que presenta una innegable diversidad. El reconocimiento y la aceptación de esta realidad plural, no como un hecho al que desgraciadamente debamos someternos, sino como una incalculable oportunidad de enriquecimiento humano, es condición necesaria para construir un futuro en paz y en libertad.

- La necesaria lucha contra el terrorismo debe respetar escrupulosamente la legalidad y los derechos humanos. La lamentable perduración del terrorismo no puede provocar la más mínima disminución en la exigencia de que la necesaria

lucha contra el terrorismo se deba realizar bajo el escrupuloso respeto de los Derechos Humanos y los principios democráticos. No todo vale en la lucha contra el terrorismo. Además, la firme y clara defensa de este principio fortalece al Estado de Derecho.

Así mismo, se debe velar para que las acciones judiciales contra la libertad de expresión y de regularización de la participación política estén bien fundamentadas y respondan a la existencia probada de delito. Rechazamos, en este sentido, la aplicación de medidas cautelares de gran trascendencia que resultan en la práctica definitivas e irreversibles.

## Conclusiones

Este es el significado que para Gesto por la Paz tiene **deslegitimar la violencia**. Es un análisis que no responde a una coyuntura concreta. Es el resultado de nuestra reflexión y de nuestra experiencia en más de 20 años de trabajo.

El problema del terrorismo debe ser abordado desde un **ámbito pre-partidista** basado en la asunción de unos principios básicos que tenga como resultado una actuación unitaria frente al terrorismo y en la renuncia a utilizar este problema del terrorismo de forma partidista. La deslegitimación de la violencia y todo lo que ello conlleva es uno de esos principios básicos.

Este documento lo ofrecemos a la sociedad en general como la mejor aportación que podemos hacer en este momento. Ha sido enviado a los partidos políticos y sindicatos y después del verano realizaremos una ronda de contactos con los partidos para recavar sus impresiones sobre este documento.

En estos momentos creemos que es necesario que se realice un mayor esfuerzo por cimentar, desde la asunción de unos principios básicos, ese espacio común y unitario para hacer frente al terrorismo y separar claramente el problema de la violencia de los conflictos políticos que existen. Esta sigue siendo una de nuestras demandas fundamentales en la que continuaremos trabajando.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

19 de julio de 2008

PRENTSAURREKOA

## 'INDARKERIARI ZILEGITASUNA KENDU' AGIRIAREN AURKEZPENA

Azken urteetan, Bakearen aldeko Koordinakundeak, ETAren terrorismoaren bukaera behin eta berriz exijitzeaz gain, funtsezko bi oinarri nabarmendu izan ditu, arazo larri honi aurre egiteko, hala nola:

- Indarkeriari zilegitasuna kendu.
- Indarkeriaren biktimen aldeko elkartasuna eta aitorpena.

Prentsaurreko honetan, bi oinarri horietako lehenengoari buruz eratu dugun agiria aurkeztu nahi dugu, ETAren gaitzespenetik haratago doan kontzeptu eta jarrera islatzen duen printzipioari buruzkoa hain zuzen: **indarkeriari zilegitasuna kendu.** Idazki honetan, indarkeriari zilegitasuna kentzea ezinbestekoa dela aldarrikatzeko funtsezko arrazoiak aurkeztu ditugu eta horrek jardueran zer esan nahi duen garatu dugu.

Gure ustez, nahitaezkoa da indarkeria terroristari oinarri sendoetatik aurka egitea; oinarriok, lehenengo eta behin, gaur egun basakeria honi aurre egitea ahalbideratu behar dute baina, aldi berean, oinarri demokratikoen, giza eskubideen eta euskal gizartearen aniztasuna bera bermatu behar dituzte uneoro.

Oinarri sendo horien jatorrian, gure ikuspuntutik, indarkeriari zilegitasuna kentze hori nork bere egitea eta defendatzea dago eta horrek, erakundeen, alderdi politikoen eta, orokorrean, gizartearen eguneroko jardunean eragina duten jarrera batzuk eskatzen ditu.

Hauek lirateke jarrerok:

- **Gizarteak bere egin behar du indarkeriaren aurkako gaitzespen morala.** Ezinbestekotzat jotzen dugu gizarteak, desberdintasun ideologikoak alde batera utzita, indarkeria terrorista erabiltzeko arrazoi eta justifikaziorik ez dela egon onar eta defenda dezala eta, ondorioz, biziaren eta giza eskubideen erabateko defentsa egin dezala

- **Gizarteak, bere erakunde eta indar politikoak buru dituela, indarkeriaren biktimen aldeko aitorpen, elkartasun eta oroipenean irmotasunez konprometitu behar du.** Guretzat, lehentasuna du gizarteak indarkeriaren biktimak gizarte osoaren aurkakoa zen erasoa zuzenean jasan duten auzokideak ditugula aitortzeak, ETAk ez dituelako bere helburuak direnagatik aukeratu, bizi diren gizartearentzat adierazten dutenagatik baizik.

- **Gizarte eta politika testuinguruari lotutako indarkeriaren edozein aitzakiari irmotasunez uko egin behar diogu.** Indarkeriari zilegitasuna kentzeak zera eragin behar du: indarkeriaren eta gizarte honetan Euskal Herriarekin identifikatzeko era desberdinetatik sortzen den arazo politikoaren artean kausazko lokarria ezarri nahi dutenei indar moral eta politikoa kentzea. Gaur egungo gizarte eta politika

egoeran, inolako giza sufrimendu, frustrazio edo antsia politikorik ezin dezake indarkeria beste auzokide batzuen aurka erabiltzea babestu edo justifikatu. Gatazka bakar batek ere ez gaitu nahitaez indarkeria erabiltzera bultzatzen bera konpontzeko. Beraz, terrorismoa, berez, ez dela mehatxua, indarkeriaren mehatxuaren behin-betiko desagerpenaren truke ordaindu behar dugun prezioa konponbidetzat duen auzi politikoaren isla baizik jasotzen dueneko argumentua baztertu egin behar dugu. Ezinbestekoa da indarkeria tresna politiko bezala ez justifikatzea, ez arrazoitzea, ez zuritzea..., eta bere erabilera okerreko erabakiaren fruitutzat agertzera ematea.

- Ondorioz, indarkeriaren eta politikaren arteko balizko lotura behin-betiko desegin behar dugu
  Ez dago nahitaezko loturarik ETAren indarkeriaren eta arazo politiko bakar baten artean. Arazo politikoak egoteak ez du eragiten, nahitaez, ETAren indarkeria. ETAren indarkeria, arazo politiko horiei buruz eta berauek konpontzeko moduari buruz ikuspuntu jakin bat duten pertsonentzat baizik ez da beharrezkoa. Hau da, terrorismoa, Euskal Herriko egoeraren ikuspuntu jakin baten oinarrituta bihurtzen da borrokarako tresna.

  Honen haritik, gure etorkizunaren inguruko erabaki politikoak erabat bereiztu behar dira indarkeriaren mehatxu eta txantajetik eta indarkeria erabiltzeari uko egitetik. Indarkeria darabiltenek, horren bitartez ez dituztela beren helburuak lortuko ikusi behar dute. Legez kontrakoa litzateke indarkeria uzteagatik ordain politikoak ematea.

  Gainera, gure etorkizunari buruzko eztabaida politikoei ekiterakoan, argi eta garbi adierazi behar dugu ondorengo hau: ETAren indarkeriak eta bere mehatxuak zailtasun itzelak dakartzala askatasunean eta aukera berdinetan politika normalizatua egiteko, batez ere nazionalistak ez diren alderdientzat. Era berean, ETA egoteak ez luke gure etorkizun politikoari buruzko eztabaida gelditu behar. Beraz, bi baieztapen hauek –politika egin indarkeria egon arren eta ETAk ez dezala politika zuzendu- uztartzeak, gure gizartearen etorkizun politikoari buruzko edozein proposamen esanguratsu lantzerakoan indarkeriarik gabeko egoeretan baino bidezko adostasun handiagoak bilatzera bultzatzen gaitu.

- Aniztasunetik bizikidetasun baketsua gauzatzearen alde jardun behar dugu. Eraso terrorista, aniztasunaren ezeztapena da, gizarte horretako kideek beren nortasunaren inguruan dituzten ikuskera desberdinen gutxieneko errespeturik gabe. Era bateko zein besteko egitasmo politikoek erabateko errespetua erakutsi behar diote dagoen aniztasunari. Euskal Herria eta Nafarroa gizarte plural bezala eratu izan dira kultura eta politika mailan. Euskal Herriaz hitz egitea, ezin ukatuzko aniztasuna erakusten duen giza errealitateaz jardutea da. Errealitate anitz hau, zoritxarrez men egin behar diogun egoera bezala ez ezik, giza aberastasunerako aparteko aukera bezala aitortzea eta onartzea ezinbesteko baldintza da geroa bake eta askatasunean eraikitzeko.

- Terrorismoaren aurkako borrokak zehatz-mehatz errespetatu behar ditu legeria eta giza eskubideak. Indarkeriaz jantzitako hainbeste urtek eragindako gogaitasun eta amorruak ezin gaituzte, egundoko izu honi aurre egiteko eraginkortasunaren eta ahalik eta bizkorren deuseztatzearen mesedetan, ETAren aurka denak balio duela

pentsatzera eraman. Zuzenbidezko estatuaren erabateko defentsa egin behar dugu, eta giza eskubideak eta eskubide demokratikoak gizaki bakar baten aurka ere murriztu ez daitezen ahalegindu.

Adierazpen askatasunaren aurkako eta partehartze politikoa arautzeko jarduera judizialen oinarriek sendoak izan behar dute eta delitua egotearen frogei erantzun behar diete. Honen haritik, ez dugu onartzen garrantzi handiko kautelazko neurririk ezartzea, praktikan behin-betiko eta atzeraezinak direlako.

## Ondorioak

Hauxe da Bakearen aldeko Koordinakundearentzat 'indarkeriari zilegitasuna kendu' delakoak adiearazten duena. Ez da abagune jakin bati erantzuten dion azterketa. Hogei urtetik gorako lanak eragindako gogoeta eta esperientziaren emaitza da.

Terrorismoaren arazoari esparru 'pre-partidistatik' aurre egin behar diogu: terrorismoaren aurka batera jardutea ekarriko duen oinarrizko printzipio batzuk geure egin eta terrorismoaren arazoari alderdi baten edo bestearen mesedetan erabiltzeari uko egin. Indarkeriari zilegitasuna kentzea eta honek dakarren guztia da funtsezko printzipio horietako bat.

Une honetan egin dezakegun ekarpenik onena dela pentsatuz eskaintzen diogu agiri hau gizarteari. Alderdi politiko eta sindikatuei bidali diegu, eta udaren ostean, alderdiekin harremanetan jarriko gara, idazki honi buruz duten iritzia jasotzeko.

Gure ustez, orain, ahalegin handiagoa egin behar dugu, oinarrizko printzipio batzuk geure egin eta esparru baterako eta bateratu hori finkatzeko, terrorismoari aurre egin eta indarkeriaren arazoa eta gatazka politikoak argi eta garbi bereizteko. Hauxe da gure eskaririk nagusienetakoa eta horren alde lanean jarraituko dugu.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

2008.eko uztailaren 19a

Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285
e-mail: gesto@gesto.org http://www.gesto.org